

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

LAUDIOKO UDALA

Laudion auto enplegua sustatzeko eta enpresak sortzea pizteko diru-laguntzen oinarri arautzaileak. 2018 – 2021. Oinarrien aldatzea

1. oinarria. Xedea eta aplikazio-esparrua

Oinarri hauen xedea da langabezia dauden pertsonen norbere konturako lanpostu berriak sortzen, Laudion enpresa berriak martxan ipinita.

Diru-laguntza honek epe hau hartuko du barne: 2019ko urtarrilaren 1etik 2019ko abenduaren 31ra.

2. oinarria. Diru-laguntza jaso dezaketen jarduerak

Hau izango dira diruz lagundu daitekeen jarduerak: enpresa bat sortzea, abian jartzea eta funtzionaraztea. Enpresa horrek edozein forma juridiko izan dezake, betiere, oinarri hauetan ezartzen diren baldintzak betez gero.

3. oinarria. Erakunde onuradunak eta bete beharreko baldintzak

Enpresek eskuratu ahalko dituzte atal honetan ezarritako onurak, zeinahi izanik ere horien izaera juridikoa, banakako enpresaburuak eta profesionalak barne:

1. Egoitza soziala edota zerga-egoitza Laudio udalerrian izatea eta mikroenpresen betebeharra betetzea, hau da, gutxienez ere 10 pertsona enplegatzea.

2. Jarduera ekonomikoetan alta eman izana 2019ko urtarrilaren 1 eta abenduaren 31 bitartean, biak barne.

Edo Laudio Udalak autoenplegua sustatzeko 2018an emandako diru-laguntzaren onuraduna izatea eta soilik 2019 urteari dagokion proportziozko epe-zatian sartuta badago.

Ondore horietarako, ez dira erakunde onuraduntzat joko da 2018ko azken seihilekoan jarduera ekonomiko batean IFZ/NAN berberarekin eta jarduera talde berebean alta eman duten enpresak. Erakundean bazkide edo erkide bat baino gehiago badago, bazkide edo erkide bakoitzak, indibidualki, ezin izango du NAN berarekin alta emanda eduki diru-laguntza eskatu duen erakundearen jarduera ekonomikoa garatzen duen talde berean 2019ko urtarrilaren 1etik abenduaren 1era bitartean.

3. Egunean izatea euren zerga-betebeharrak, hala Foru Ogasunarekin, nola Laudio Udalarekin, baita indarreko xedapenek ezarritako Gizarte Segurantzarekikoak ere.

4. Ez egotea Laudio Udalaren diru-laguntzen udal ordenantzan jasotako debekuetan jasotako egoeretako batean.

5. Ez dira enpresa berri gisa hartuko aurretik martxan zen jarduera baten lekualdatzetik eratorritakoak, enpresa-titular berriak ezkontidearen, seme-alabekin edota ondorengoekin bigarren gradurainoko ahaidetasuna badute odolez edo kideztaz (bigarren gradua barne) enpresa-jarduera eskualdatzen duen pertsonarekin.

Hala ere, aurreko baldintzak betetzen direnean ere, ez dira jarduera hauek diruz lagunduko:

— Pertsona sustatzaileak enpresa-proiektu batean baino gehiagotan parte hartzen dutenean.

4. oinarria. Diru-laguntza jaso dezaketen gastuak

Diru-laguntza jaso ahal duten gastutzat hartuko dira enpresa lehen 12 hiletan martxan jarri eta funtzionamenduan ipintzeko ezinbestekoak, beti eta horien izateari eta ordaintzeari buruzko dokumentazio egiaztagarria badago (fakturak) eta ezarritako epe barruan egin badira. Hauek izan daitezke:

- Negozioa kokatzen den aretoaren alokairu edo errentaren zenbatekoa.
- Negozio aretoaren hornidurak (argia, ura, gasa, telefonoa).
- Aseguru-primak.
- Profesional independenteen zerbitzuak.
- Publizitatea eta promozioa.

– Eratze-Gastuak: erregistroa, notaritza sozietatea eratze-eskitura egilesteko eta sozietatea martxan jartzeari lotutako aholkularitza zerbitzuak.

– Langile autonomoen araubide berezian Gizarte Segurantzari edo dagokion mutualitateari ordaindutako kotizazioak, baita kontingentzia arruntengatik araubide orokorrean, betiere, enpresari ekonomia jardueren gaineko zergan alta eman eta hurrengo urtean.

Aretoek sortutako gastuak kontuan hartu ahal izateko, aretoon alokairu-kontratua eskatuko da, betiere, diru-laguntzaren justifikazioaren ondoretarako, jarduerari atxikita daudela egiaztatzen den proportzioan.

5. oinarria. Diru-laguntzaren zenbatekoa. Prozedura

Enpresa bakoitzerako diru-laguntzaren gehieneko zenbatekoa 2.000 euro izango da, edo 3.000, baldin eta sustatzaileetakoren batek Audio Udaleko Ekonomia Garapen Arloak egindako Bideragarritasun Plana badauka. Hala eta guztiz ere, ematen den zenbatekoak ez du inolaz ere gaindituko erakunde onuradunak justifikatutako gastuak.

Edonola ere, eman beharreko diru-laguntzen guztirako zenbatekoak ezin izango du gainditu 7. oinarrian aurreikusitakoa.

Oinarrietan ezarritakoa aplikatuta onetsitako eskaera guztiei eman beharreko diru-laguntzen zenbatekoak gainditzen badu partidan kontsignatutako kopurua, 6. Oinarrian azaldutako prozedura aplikatuko da.

6. oinarria. Emateko prozedura eta baloratzeko irizpideak

Norgehiagokaren araubidea aplikatuko da eskaeren hautespena egiteko. Ondore hauetarako, norgehiagoka iritziko zaio aurkeztutako eskaerak alderatzearen bidez egiten den prozedurari, alderatu ondoren, artikulua honetan adierazten diren irizpideen arabera lehentasun mailak ezartzeko; diru-laguntzak emango zaizkie irizpide horiek aplikatu ondoren baloraziorik handiena jasotzen duten eskaerei. Eskaera batek baino gehiagok puntuazio bera jasotzen badute, eskaeren sarrera-erregistroko zenbakien hurrenkeraren arabera emango dira laguntzak.

Balorazio-irizpideak:

1. Langabetuak: 5 puntu.
2. Enplegua sortzea: 3 puntu (ez da enplegu-sortze gisa hartuko ekintzaileek beraiek sortutako lanpostuak).
3. Negozio-linea berria: 2 puntu.
4. Enpresa berria: puntu 1.

7. oinarria. Aurrekontuan dirua eskuragarri egotea

Deialdi honetan aurreikusitako diru-laguntzak finantzatzeko, 2020ko udal aurrekontuko "Ekintzaileentzako diru-laguntzak" izeneko 1000-4331-481.00 partida erabiliko da, 12.000,00 euroko obligazioa finantzatzeko kreditu egokia eta nahikoa izateko etendura-baldintza egonda.

8. oinarria. Beste diru-laguntzekiko bateragarritasuna

Laguntza hauek ematea bateragarria izango da beste edozein organismok eta erakundek emandakoekin, beti-eta betetzen badituzte hurrengo baldintza hauek:

Justifikatutako gastuetatik zuzenean kengarriak izango dira diruz lagun daitezkeen egintzei dagokienez helburu berdina aurreikusia duten beste administrazioen edo organoek emandako diru-laguntzak, betiere, denbora tarte berdinean ematen ez badira, eta aurreko puntuan adierazitako gehieneko zenbatekoak jotzen badira, halako moduz ezen oinarriotan araututako laguntzen zenbatekoa ezingo baiten inoiz ere izan, bakarrik edo beste administrazio batzuetako laguntzekin bateratuta, erakunde onuradunak gauzatu behar duen jardueraren kostua gainditzeko adinakoa.

Beste diru-laguntzaren bat jasotzen den unean, Audio Udalari jakinaraziko zaio. Beste diru-laguntza jasoko dela ezagutu bezain laster egin beharko da jakinarazpena, eta, dena den, jasotako funtsen aplikazioaren justifikazioa baino lehen. Jasotako diru-laguntzekin finantzatzeaz gain, jarduerak finantzatu direnean elkartearen funts propioekin edo beste diru-laguntza edo baliabideekin finantzatu direnean, justifikazioan egiaztatu beharko dira zenbatekoa, horren jatorria eta funtsak diruz lagundutako jardueretarako erabili izana.

9. oinarria. Erakunde onuradunen betebeharrak

Laguntza hauen erakunde onuradunak behartuta daude Udalaren / Ekonomia Garapen Arloaren egiaztatze-ekintzak, Udalaren Kontu Hartzailatza Nagusiari dagozkion finantza-kontrolak eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiaren arauetan aurreikusitakoak onartzera.

Arestiko betebeharrak orokorraz gain, beharko dute:

a) Enpresa gutxienez 12 hilabetez altan edukitzea, kasuan kasuko, eratu zenetik edo ondorengotzatik zenbatuta, salbu eta egiaztatzen badute enpresa alde aurretik itxi beharra, arrazoi objektibo eta justifikatuengatik.

b) Jakinaraztea edozein inguruabar objektibo nahiz subjektibo aldatu izana, diru-laguntza emateko kontuan hartu baldin bada.

c) Helaraztea emandako diru-laguntzekiko dituen zereginak gauzatzean Audio Udaleko Ekonomia Garapen Arloak eska dezakeen informazio oro helaraztea.

d) Jakinaraztea Audio Udaleko Ekonomia Garapen Arloari helburu bererako beste diru-laguntzak edo laguntzak eskatu edota lortu izana edozein administrazioetatik edo erakunde publiko zein pribatuetatik.

e) Kasuan kasuko legeek eskatzen dutenarekin bat, eskura izatea kontu liburuak eta gainerako dokumentuak behar den legez eta auditatuta, erregistratuta eta diligentziaz, hala badagokio.

f) Egiaztatzea organo emaile edo erakunde kolaboratzailearen aurrean, hala badagokio, eskakizunak eta baldintzak bete izana, baita jarduera benetan egin dela eta diru-laguntzaren emakida edo gozamina zehazten duen xedea bete egin dela.

g) Zabalkundeko neurriak hartzea: onuradunek diru-laguntza jasotzen duten programen, jardueren, inbertsioen edo ekimenen finantzazioaren izaera publikoaren publizitate egokia eman behar dute, araudiz ezarritako terminoen arabera.

h) Jasotako diru-laguntza funtsen zenbatekoak itzultzea, azaroaren 17ko 38/2003 Diru-laguntzen Lege Orokorraren arabera:

1. Jasotako zenbatekoak itzuliko beharko dira eta diru-laguntza ordaintzen den unetik itzulketa hori egiteko erabakiko den egunera arte dagokion berandutza-interesak eskatuko dira, hurrengo kasuetan:

a) Diru-laguntza lortzea, horretarako beharrezkoak diren betekizun baldintza faltatuta edo hura galaraziko luketen arrazoiak ezkutatuta.

b) Ez betetzea proiektuko jardueraren xedea osorik edo partzialki edo diru-laguntzaren emakida funtsatzen duten portaera ez hartzea eta gauzatzea.

c) Ez betetzea justifikazio betebeharra edo Diru-laguntze Legeko 30. Artikuluan ezarritakoaren, eta hala badagokio, diru-laguntzaren oinarri arautzaileen arabera justifikazioa ez izatea nahikoa.

d) Ez betetzea Lege horretako 18. artikuluko 4. atalean jasotako hedapen neurriak hartzeko betebeharra.

e) Lege horretako 14. eta 15. artikuluetan aurreikusitako egiaztapen- eta finantza-kontrol ekintzekiko erresistentzia, aitzakia, eragozpena edo ukoa, hala nola kontabilitate, erregistro eta dokumentuak gorde beharra ez betetzea, halako moduz ezen horren ondorioz ezinezkoa suertatzen bada egiaztatzea jasotako funtsei emandako erabilera, xedea bete den ala ez eta diru-laguntza jaso duten jardueren erregularatasuna, diru-laguntza, laguntza, diru-sarreraren edo baliabideen konkurrentzia, Europar batasuneko edo nazioarteko erakundeetako edozein administrazio edo erakunde publiko edo pribatutik helburu bera betetzeko.

f) Ez betetzea erakunde laguntzaileei eta onuradunei administrazioak ezarritako betekizunak, baita horiek diru-laguntzaren emakidaren ondorioz bere gain hartutako konpromisoak ere, betiere eragina badute edo erlazioa badute diru-laguntzaren emakida funtsatu duen jarduera egitea, proiektua egikaritzea edota portaera hartzearekin.

g) Ez betetzea erakunde laguntzaileei eta onuradunei administrazioak ezarritako betekizunak, baita horiek diru-laguntzaren emakidaren ondorioz bere gain hartutako konpromisoak ere, aurrekoen gain, halako moduz ezen horren ondorioz ezinezkoa suertatzen bada egiaztatzea jasotako funtsei emandako erabilera, xedea bete den ala ez eta diru-laguntza jaso duten jardueren erregularatasuna, diru-laguntza, laguntza, diru-sarreraren edo baliabideen konkurrentzia, Europar batasuneko edo nazioarteko erakundeetako edozein administrazio edo erakunde publiko edo pribatutik helburu bera betetzeko.

h) Europar Batasuneko Tratatuaren 87. eta 89. artikuluek xedatutakoaren arabera, jasotako diru-laguntza bueltatu beharra sortzen duen erabakia hartzea.

i) Diru-laguntza arautzen duen oinarri araudian aurreikusitako gainerako kasuetan.

2. Onuradunak edo, hala dagokionean, erakunde kolaboratzaileak ez duenean bete osorik era esanguratsua eta horiek egiaztatu duten jarduera izan bada inolako zalantza izpirik gabe asebetetzeko bere konpromisoak, bueltatu beharreko zenbatekoa zehaztuko da Lege horretako 17. artikuluko 3. ataleko n) paragrafoan zerrendan adierazita dauden irizpideak edo, hala bada-gokio, diru-laguntzaren autonomia erkidegoko araudian ezarritakoak aplikatuta.

3. Halaber, Lege horretako 19. artikuluko 3. atalean aurreikusitako kasuan, diruz lagundutako jarduerak izan duen kostuarekin atera den diru-irabazitik bueltatu beharra sortuko da, baita dagokion berandutze-korrituaren eskakizuna ere.

10. oinarria. Nahitaezko dokumentazioa. Eskaera eta justifikazioa

Berriazko eredu normalizatuan aurkeztuko dira laguntza eskaerak, hauek erantsita:

a) Enpresaren ordezkartzan ari den pertsonak izenpetutako eskaera-orria eta horretarako aurreikusitako gainerako formularioak, besteak beste, hauek:

– Laguntza-eskaera aurkeztu duen pertsonari baimen ematea enpresaren izenean jarduteko jakinarazpenen ondoretarako.

– Beste erakunde publiko edo pribatuetatik jarduera berdinerako jasotako edo horiei eskatutako laguntzei buruzko zinpeko aitorpena.

– Baimena ematea Laudio Udaleko Ekonomia Garapen Arloari, egoki baderitzo, informazioa eskatu ahal izateko Euskal Enplegu Zerbitzuari (Lanbide) nahiz xede bererako diru-laguntzak eman litzakeen beste edozein erakunde publikori.

– Arau-hausteen ondorioz diru-laguntza publikoetara aurkeztetik kanporatuta ez egoteari buruzko zinpeko aitorpena.

– Mikroenpresa izaerari buruzko zinpeko aitorpena.

– Helbideratzea egiteko banku-datuen inprimakia.

b) Enpresa eratzeko erregistro-datuak eta eratzte-eskriuren kopia, nortasun juridiko propioa duten erakundeen kasuan. Nortasun juridiko propiorik ez duten sozietate zibilen kasuen, Foru Ogasunak zigilatutako kontratu pribatua erantsiko da.

c) Foru Ogasunaren eta Gizarte Segurantzaren ziurtagiri eguneratuak erakunde horiekiko betebehara eta obligazioak egunean izateari buruz.

d) Eskatzailea ekonomia jardueren gaineko zergan izandako alta eta baja aldien ziurtagiri eguneratua (Foru Ogasuna).

e) Lan-bizitzaren txostena eskaera egiteko egunean.

f) Autonomoen araubidean edo dagokion mutuan alta emateari buruzko ebazpenaren kopia.

g) Ekonomia jardueretako altaren kopia.

h) Erakunde onuradunaren LAT (langile aktiboen txostena) sortutako lanpostuak egiaztatze.

i) Jardueragatik jaso izan diren beste diru-sarrera edo diru-laguntzen xehetasunak.

j) Emandako diru-laguntza justifikatzeko, diruz lagun daitezkeen gastuen jatorrizko fakturak aurkeztuko dira, egiaztatze ondoreetarako, betiere, gastuei dagozkien ordainketen bankuagiriarekin batera.

Dena den, justifikazio gisa ematen diren fakturak diru-laguntzaren onuraduna den enpresaren izenean egon behar dute, eskatzailearen zerga arloko datuekin.

Zehazki, negozioaren aretoaren alokairuaren kasuan, eta hori justifikatzeko, aintzat hartuko dira soilik kontzeptu horiengatik ordaindutako kopuruak, alokairu-kontratua erantsi edota txertatu bada, eta ondorengo ordainketen banku-ordainagiriak ere erantsi badira.

k) Goragoko paragrafoetan zehaztutako gastuak kontuan izateko ezinbesteko betekizuna izango da ekonomia jardueretan alta eman zenetik urtebeteko epe barruan autonomoen araubide berezian Gizarte Segurantzari edo mutualitate baliokideari egindako kotizazioen ordainketei dagozkien egiaztagiria aurkeztea. Horretarako, hileko banku-ordainagiriak edota ordainketa horiek benetan egiaztatuko dituen Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Orokorrek emandako dokumentua erantsi beharko da. («Oinarrien eta ordaindutako kuoten txostena»).

Gastu guztiak dagokion jarduera ekonomikoan alta eman den unetik aurrera zenbatutako urtebeteko epean hartuko dira kontuan. Gizarte Segurantzari edo mutualitate baliokideari hileroko egindako ordainketak ez badira egiaztatzen, altan egondako denboran edo ordainketa egiaztatzen den denboran emandako zenbatekoen hainbanaketa egingo da eta, ondorioz, esleitutako diru-laguntzaren zenbatekoa gutxituko da proportzio berean. Dena den, jarduera ekonomikoari baja ematen bazaio, egun horretarik aurrera ordaindu barik dauden diru-zenbatekoak kobratzeko eskubidea galduko da.

Diru-laguntzaren eskaera aurkezteko une berean aurkeztu beharko da justifikazioa.

Justifikatzeko fakturen fotokopia konpultsatuak egiaztagiria gisa balio izateko, kasuan kasuko gastua beste baliabide batekin edo diru-laguntza batekin finantzatu behar izan da.

Eskaera/justifikazioa onetsia geratuko da faktura/dokumentuekin eta dagozkien ordainketa egiaztagiriekin behar bezala justifikatutako gastuen zenbatekora arte.

Ekonomia Garapen Arloak eskaera sakonki aztertuko du eta, edonola ere, informazio eskatu ahalko die Euskal Enplegu Zerbitzuari (Lanbide) edo laguntzak ematen dituzten beste erakunde publikoei balizko laguntzen bateratzeari buruz.

Ofizios egiaztatuko da ea erakunde eskatzaileak Audio Udalarekiko zerga betebeharrak egunean dituen eta ekonomia jardueren gaineko zergan alta emanda duela, baita irekitzeko behar diren baimenak dituela ere, beharrezkoa balitz.

Hamar egun naturaleko epea ezarri da eskatzaileek errekerimendua jasotzen duten egunetik aurrera zenbatzen hasita, eskaerarako nahiz justifikaziorako prozedura honetan eskatutako dokumentazio guztia osatu ahal izateko, betiere, ulertuta hala egingo ez balute une horretara arteko izapide guztiak baliogabetzat joko direla.

11. oinarria. Eskaerak aurkeztea

Eskaera Audioko udaletxeko erregistro orokorrean aurkeztu beharko da, nahitaezko dokumentazioa eta agiriekin batera. Urriaren 1eko 39/2015 Legearen, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzkoaren 16.4 artikuluan aurreikusitakoa aplikatuko da.

Interesdunek eskaera aurkeztean, oinarri hauen edukia onartzen dutela ulertuko da.

Eskaera aurkezteko epea zenbatzen hasiko da deialdi hau ALHAOn argitaratzen den egunaren biharamunetik, eta 30 egunetan baliiodunekoa izango da.

12. oinarria. Prozedura

Instrukzioa eta proposamena.

Ekonomia Garapen Arloari dagokio deialdi honetan aurreikusitako diru-laguntzen instrukzioa egitea. Ekonomia Garapen Arloko Batzorde Informatiboan aztertu eta ebaluatuko dira eskaerak, eta azken horrek egingo du ebazpen-proposamena.

Ebazpena.

1. Ekonomia Garapen Arloko Batzorde Informatiboak bere proposamena aurkeztu ostean, Tokiko Gobernu Batzarrak erabakiko du prozedurari dagokionez arrazoitutako ebazpen baten bitartez, betiere, oinarrietan ebatzitakoaren arabera eta nahitaezko baldintza izanda prozeduran behar bezala egiaztatuta geratzea ebazpenaren funtsak eta horren justifikazio perfektua.

2. Jakinarazpenen prozesua sinplifikatu, arindu eta errazteko, diru-laguntza eskatzen dutenek udal dokumentazioa eta komunikazioak jasotzeko erabili nahi duten helbide elektronikoa eman ahalko diote Udalari.

3. Ebazpenean berariaz jasota geratuko da ez onartzearen arrazoia.

4. Ebazteko eta jakinarazteko gehieneko epea hiru hilabetekoa izango da deialdia argitaratzen den egunetik hasita.

5. Ebazpenean jasota geratuko da diru-laguntzaren zenbatekoa eta ordaintzeko era.

13. oinarria. Kudeaketa, diru-laguntzaren ordainketa

Tokiko Gobernu Batzarrak ebazpena onesten duenean egingo da ordainketa, ordainketa bakarrean, hiru hilabeteko epean, Tokiko Gobernu Batzarrak ebazpena hartzen duenetik aurrera zenbatuta. Horretarako, Audio Udalak alde aurretik eta ofizios egiaztatuko du diru-laguntzaren onuradunak jarraitzen duela alta emanda laguntza kobratzeko unean, betiere, aurrekontuan beharrezko baliabideak badaude.

Banku-transferentzia bidez egingo da emandako diru-laguntzaren ordainketa bakoitza, erakundeak edo pertsona onuradunak adierazitako kontu korrontean.

14. oinarria. Oinarrien interpretazioa

Ekonomia Garapen Arloko Batzorde Informatiboak ebatziko du oinarrien interpretazioan sor litekeen edozein zalantza.

Oinarri espezifiko hauetan berariaz jasota ez dauden alderdi guztiei dagokienez, Laudio Udalen diru-laguntzen ordenantza orokorrean erabakitakoa aplikatuko da, baita Diru-laguntzen 38/2003 Lege orokorrean eta gainerako Lege-xedapen komunetan xedatutakoa ere.

15. oinarria. Oinarriak ez betetzea

Onuradunak ez badu betetzen oinarri hauetan erabakitako edozein betebeharr edota baldintza, laguntza eskubidearen galdutzat aitortuko zaio, jasotako dirua itzuli beharko du eta laguntza ordaindu zen egunetik hasitako berandutze korrituak ere ordaindu beharko ditu. Horrez gain, soberan diruz lagundutako zenbatekoa itzultzeko prozedura abiaraziko da, diru-laguntza emateko oinarrietan aurreikusitako justifikazio osoa edo partziala aurkezteko betebeharrak ez betetzearen ondorio guztiak aplikatuta, Diru-laguntzen 38/2003 Lege Orokorrean ezarria dagoen prozedurari jarraiki, hala itzultzeak exijitzeko nola egin daitezkeen arau-hauste eta zehapenetarako.

16. oinarria. Izaera pertsonaleko datuen babesa

Oinarri hauek izapidetzean dokumentazioan jasota geratzen diren izaera pertsonaleko datuak Laudio Udaleko Ekonomia Garapen Arloaren datu-fitxategietan geratuko dira, zerbitzuen kudeatzea errazteko. Laguntzen programan parte-hartzeak inplikatzeko du komunikatzen diren datu pertsonalak beste administrazio publiko batzuei edo Laudio Udaleko Ekonomia Garapen Arloaren erakunde laguntzaileei laga ahalko zaizkiela. Hala ere, lagatze hori Laudio Udaleko Ekonomia Garapen Arloko funtzioekin harreman zuzena duten helburuak betetzea errazteko baino ezingo da egin.

Ematen dizkiguzun datuak Enpresa Arloa izeneko fitxategi batean sartuko dira, Laudio Udaleko Ekonomia Garapen Arloaren jabetzapean, Enpresa Arloa kudeatzeko; datuen segurtasun osoa bermatzeko beharrezko neurriak izango ditu fitxategi horrek. Datuen Babeserako Lege Organikoak (DBLOak) berariaz aitortzen dituen atzitze, zuzentze, ezabatze eta aurkaratze eskubiak egikaritu ahal izango dituzu komunikazio idatzi bat bidalita Laudio Udaleko Ekonomia Garapen Arloko zinegotzi ordezkariari.

Laudion, 2020ko urriaren 30ean

Alkatea

ANDER AÑIBARRO MAESTRE